


2012ko abuztuan industriako prezioek %0,6 egin dute gora aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2012ko abuztua 2011koaren aldean) %1,8 igo ziren

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioek %0,6ko hazkundera izan dute 2012ko abuztuan, aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan hartuta, abuztuko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) %1,8ko hazkundera iritsi zen.

Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen abenduko urte arteko tasak. Behin-behineko datuak



(*) 2012ko abuztua urte arteko hazkundera

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Sektorekako azterketa xeheagoak agerian uzten du 2012ko abuztuan, "Kokegintza eta petrolio finntzea" (%6,7), "Elikadura industria" (%0,5), eta "Industria kimikoa" eta "Makinariaren eta ekipoaren fabrikazioa" (biak ere %0,2ko hazkunderarekin), horiek direla prezioa gehien gehitu zituzten adarrak, aurreko hilaren aldean. Bestalde, prezioetan jaitsierak izan zituzten sektoreak honakoak izan ziren. "Garraio materialaren fabrikazioa" (%-1,3) eta "Produktu informatikoen fabrikazioa" (%0,9).

Urte arteko aldean, hots, 2012ko abuztuan, 2011koaren aldean, prezio-hazkunderik handienak honako adar hauek izan dituzte: "Kokegintzak eta petrolio finntzea" (%15,8), "Energia elektrikoa, gasa eta lurruna" (%7,0) eta "Produktu informatikoen eta elektronikoen fabrikazioa" (%4,8. Kontrako noranzkoan, jaitsierak izan zituzten "Metalurgia eta metalezko gaiak" (%-2,2), "Garraio materialaren fabrikazioa" (%-1,7) eta "Zurgintza, papera eta arte grafikoak" (%-1,4) sektoreetako prezioek.

Xede ekonomikoaren arabera ondaren sailkapenari jarraituz, sektore garrantzitsuenen prezioek abuztuaren izan duten bilakaerak ibilbide ezberdina izan du horietariko bakoitzean: Energiaren prezioak %3,9 igo ziren; Bitarteko ondarenak %0,2 jaitsi dira; Ekipo-ondarenak %0,4 jaitsi ziren eta Kontsumo-ondarenak, orokorrean, %0,1 jaitsi ziren, zeren eta Kontsumo-ondaren iraunkorren prezioak egonkor mantendu badira ere (%0.0), Kontsumo-ondaren ez-iraunkorrenak, aldiz, %0,1 jaitsi baitira.

Ondaren-talde handietako prezioen bilakaera modu askotakoa izan da urte arteko aldirian. Energiaren prezioak igo egin ziren, %12,0, hain zuzen. Ekipo-ondarenak ere bai: %0,7. Bitarteko ondarenak, ordea, %1,2 jaitsi ziren. Kontsumo-ondaren prezioak, orokorrean, %0,6 jaitsi ziren. Azken horien barruan, kontsumo-ondaren iraunkorren prezioak %0,3 igo ziren, eta kontsumo-ondaren ez-iraunkorrenak %1,0 jaitsi.

INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA. EUSKAL AE. DATU AURRERAPENA. 2012ko ABUZTUA				
GOIBURUAK	INDIZEA Oinarria 2005=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
INDIZE OROKORRA	125,0	0,6	1,8	1,8
SEKTORE-BANAKETAK				
Ateratze-industriak	119,0	-0,6	-0,8	-3,3
Manufaktura-industria	121,6	0,6	1,3	1,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	167,6	0,1	7,0	3,9
ONDASUNAK, HELBURU EKONOMIKOKA				
Kontsumo-ondarenak	113,7	-0,1	-0,6	-0,8
Kontsumo-ondaren iraunkorrak	106,0	0,0	0,3	0,2
Kontsumo-ondaren ez-iraunkorrak	117,1	-0,1	-1,0	-1,2
Ekipo-ondarenak	112,0	-0,4	0,7	0,7
Bitarteko ondarenak	119,1	-0,2	-1,2	0,6
Energia	170,4	3,9	12,0	7,4

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari \(IPRI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen \(IPRI\) gaineko datu-bankua](#)